

NON GORDE DIRA BURUHANDIAK?



➤ BENTA BERRI

Errezeta berri bat prestatu nahi dut eta osagaiak erosi behar ditut. Benta Berriko dorrearen beheko aldean saiatuko naiz. **Sin. Sukaldaria**

➤ ERDIALDEA

Oinezko kale baten ondoan eta aparkaleku baten gainean askaria eta aurpegia margotzeko makillajea erosi nahi ditut. **Sin. Arlekin**

➤ LOIOLAKO ERRIBERAK

Galletak, oilaskoa, xanpua eta zartagin berri baten bila Erriberetako lokal handi batera abiatu naiz. **Sin. Kalderero gizona**

➤ AMARA

Anoetatik gertu dagoen kale bateko letra gorriek nire letxugak, kalabazinak eta sagarrak non eskainiko dizkizuten erakutsiko dizute. **Sin. Baserritar emakumea**

➤ ERDIALDEA

Terraza batean eseri naiz izozki-tarrina bat hartzera, polo bat eta kafe deskafeinatu baten artean nere zalantzak izan ondoren. **Sin. Kalderero emakumea**

➤ EGIA

Egiatik paseatzen nekatu samar nago, baina gaur nire eguna izango da, ohe bat eta koltxoi bat burko eder batekin ikusi ditut, eroso eta gustoko ditudanak. **Sin. Urketaria**

➤ BIDEBIETA

Azkuenen gora joanda, puntako moda dagoen leku bat ikusiko duzu, bertan, nire mozorroa utzi eta arropa politagoatik aldatu dut. **Sin. Pierrot**

➤ ERDIALDEA

Eskulanak egitea gustatzen zait, eta horregatik joan naiz paper, pintura eta bestelako materialen bila, probintzia izena duen plazatik gertu. **Sin. Baserritar gizona**

➤ ERDIALDEA

Merkatu handi baten erdian, ziur asmatu egingo duzula non nagoen, txuleten eta solomoen artean. **Sin. Inudea**

Leku berean ere, abisua eman nahi dizuet, ni zoratzen egongo naiz, txutxe paradisu batean.

Sin. Artzaia

➤ ALDE ZAHARRA – ARRASTOA

Hango eta hemengo jendea, batzuk erostera besteak begiratzera joaten diren eraikin batean, gu itsas animaliak ikustera eta urdaiazpikoa eta txorizoa erostera joan gara.

Sin. Danborrharia - Kantina